

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1098/2008/EE ERABAKIA, 2008ko urriaren 22koa, Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Europako Urteari buruzkoa (2010).

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*DECISIÓN 1098/2008/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 22 de octubre de 2008, relativo al Año Europeo de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social (2010)*». (Diario Oficial de la Unión Europea, L 298/20, 07.11.2008)

1098/2008/EE erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 298/20, 2008/11/7koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA KONTSEILUAK BATERA HARTUTAKO ERABAKIAK

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1098/2008/EE ERABAKIA

2008ko urriaren 22koa

Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Europako Urteari buruzkoa (2010)

(Testu egokia EEEren ondorioetarako)

EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatua, eta, bereziki, haren 137. artikuluko 2. paragrafoa aztertu du,

Batzordearen proposamena aztertu du, Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu du ⁽¹⁾,

Eskualdeetako Komiteak emandako irizpena aztertu du ⁽²⁾,

Tratatuaren 251. artikuluko araututako prozedura bete du ⁽³⁾:

Alderdi hauek kontuan hartu ditu:

(1) Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzea da Europar Batasunak eta haren estatu kideek duten konpromiso sendoenetarikoa bat.

(2) Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuko gizarte-politikako xedapenek (bereziki, 136. eta 137. artikuluek) hainbat jarduketaremu arautzen dituzte. 1997ko Amsterdango Tratatuekin eremu horietan gizarte-bazterkeriaren aurka egiteko xedapen gehiago onartu ziren, eta horrez gain, gizarte-bazterkeriaren aurkako eremuan beste konpromiso politiko batzuk lortzeko esparru eta oinarri juridiko berriak sortu ziren.

(3) Kontseilu Europarrak, 2000ko martxoaren 23an eta 24an Lisboan elkartu zenean, aitortu zuen onartezina zela horrenbeste pobrezia eta gizarte-bazterkeria egotea. Erabakigarritzat jo zuen Europar Batasuna integratzaileagoa izatearen alde lan egitea, hamar urtetan Batasunaren helburu estrategikoa lortu ahal izateko; hau da, hazkunde ekonomikoa egotea, lanpostu gehiago eta kalitate hobekoak sortzea eta kohesio soziala areagotzea.

(4) Lisboan elkartutako Kontseilu Europarrak zera eskatu zien estatu kideei eta Europako Batzordeari: 2010erako beranduenez, pobrezia errotik kentzeko eragin erabakigarria izango zuten neurriak har zitzatela. Horregatik, Lisboako Kontseilu Europarrak eremu horretan Koordinatzeko Metodo Irekia (ingelesez OMC) hartzea onartu zuen.

(5) Gizarte-babesari eta gizarte-inklusioari dagokionez, tresna garrantzitsua izan da OMC hasieratik; batetik, konpromiso politiko horren alde egiteko; eta bestetik, EBk estatu kideei emandako laguntza sendotzeko, Europan kohesio sozial handiagoa egon dadin.

(6) OMCri esker, gehiago ikas daiteke elkarrengandik, eta gainera, herritarrak sentsibilizatu ditu, bazterkeriak eta pobrezia alderdi asko dituela ohar daitezten. Hortaz, OMC lagungarria izan da lekuan bertan eragina izateko eta herritarrek hobeto ikusteko Europar Batasunak balio sozialen alde egiten duela.

(7) Lorpenak lorpen, biztanleriaren zati handi batek oraindik gabeziak ditu, ezin ditu zerbitzuak behar beste eta besteen antzera erabili, edota gizarteak baztertu egiten du. Gizarte-babesari eta gizarte-inklusioari buruz 2008an idatzitako txostenak nabarmendu duenez, Europar Batasunean 78 milioi pertsona bizi da pobrezia-egoera bizitzeko arriskuan; eta haietarik 19 milioi haurrek dira. Generoen artean ehuneko bi inguruko aldea dago.

(8) Gainera, gero eta kezagarriagoak dira errenten arteko aldea eta muturreko pobrezia Batasun osoan.

(9) Kohesio soziala eta ekonomikoa posible egiteko, honako hauei lagundu behar zaie: eskualde ahulenei, egiturazko atzerapena duten eskualdeei, eskualde ultraperiferikoei, zenbait irlari eta irla diren estatu kideri, eta duela gutxi desindustrializazioa edo industria-birmoldaketa izan duten eskualdeei.

(1) C 224 EO, 2006.8.30ekoa, 106. or.

(2) 2008ko ekainaren 18ko Irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea).

(3) Europako Parlamentuaren 2008ko ekainaren 17ko Irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluak 2008ko urriaren 2an hartutako Erabakia.

1098/2008/EE erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 298/20, 2008/11/7koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(10) Gizarte-bazterkeriak kalte egiten dio herritarren ongizateari; izan ere, oztopatu egiten du gizartean adierazpidea izateko eta parte hartzeko duten gaitasuna. Garrantzitsua da, beraz, alderdi hori behar bezala nabarmentzea Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Europako Urtean (aurrerantzean «Europako Urtea»).

(11) Europako Parlamentuaren 2007ko azaroaren 15eko Ebazpenean, gizarte-errealitatea ebaluatzeari buruzkoan, Europako Parlamentuak nabarmendu zuen Europar Batasuneko politikan lehentasuna izan behar zuela kohesio soziala indartzeak, eta pobrezia eta gizarte-bazterkeria errotik kentzeak.

(12) Bai Europar Batasunak, bai Europar Batasunaz kanpoko herrialdeek, guztiek borrokatu behar dute pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka. Horretarako, Nazio Batuen Garapenerako Milurteko Helburuei jarraitu behar die, alegia, Europar Batasunak eta bertako estatu kideek sinatu zituztenei.

(13) Pobrezia eta gizarte-bazterkeria arazo zabalak eta konplexuak dira, eta alderdi asko dituzte. Faktore ugari du haiekin zerikusia: hala nola, diru-sarrerek eta bizi-baldintzek; ikasteko edo lan duinak topatzeko beharrak; gizarte-babeserako sistemak eraginkorrak izateak; etxebizitzak; osasun-zerbitzuak eta kalitate oneko beste zenbait zerbitzu erabili ahal izateak; edota herritarrek parte-hartzaileak izateak. Horrenbestez, interesdunek parte hartu behar dute beraiei dagozkien politikako eremu guztietan.

(14) Hori dela eta, pobreziari aurrea hartzeko eta haren aurka borrokatzeko, alderdi asko jorratuko dituzten politikak behar ditugu, nola estatuetan, hala eskualdeko eta tokiko esparruetan. Politika horiek bermatuko dute politika ekonomikoa eta soziala orekatuta egongo direla, eta estrategia zehatzak egongo direla egoera bereziki ahula bizi duten pertsona-taldeentzat. Europako Urteak asko lagundu dezake, batetik, alderdi asko jorratzen dituzten politika horietan, eta bestetik, horri buruzko adierazleak gerora garatzen.

(15) 2005-2010 Gizarte Agendak Lisboako estrategia osatu eta babesten du, eta funtsezkoa da hainbat kontu sustatzeko: hala nola, hazkunde ekonomiako alderdi soziala, edota herritarrek gizartean eta lan-merkatuan parte-hartze bizia izatea. Agendaren lehentasunen artean honako hauek daude: guztiontzako aukera-berdintasuna bilakatzea gizarteko eta belaunaldien arteko elkartasunaren bitarteko; edota beste gizarte-mota bat sortzea, pobrezia gutxiago izan eta inklusiboagoa izango dena.

(16) Gizarte Inklusiorako Ekintza Plan Nazionaletan, hainbat estatu kidek nabarmendu du zein taldek duen bereziki arriskurik handiena pobrezian edota bazterkerian bizitzeko: hain zuzen ere, haurrek, garaia baino lehenago eskola uzten duten gazteek, guraso bakarrek, familia ugariak, diru-sarrera bakarra duten familiek, gazteek —bereziki emakume gazteek—, pertsona zaharrek, immigranteek eta gutxiengo etnikoek, ezgaitasunen bat duten pertsonak eta haiek zaintzen dituztenek, etxerik ez duten pertsonak, langabeek —bereziki luzaroko langabeek—, presoek, biolentziaren biktima diren emakumeek eta haurrek, eta drogazaleek. Estatu politikak eta talde ahulenei laguntzeko neurriak egiteko garrantzitsua izan dezakete pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokan.

(17) Enplegu duina izateak nabarmen jaits dezake pobrezia-egoerak bizitzeko arriskua. Hala ere, enplegua izatea bakarrik ez da, berez, nahikoa pobre ez izateko. Eta horregatik, pobrezia-egoera bizitzeko arriskua duen pertsonen kopurua altua da proportzioan lan egiten duten pertsonen artean ere. Ezaugarri hauek izan ditzake, besteak beste, enplegua izanagatik pobrezian dagoen pertsonak: soldata txikia izatea, gizonen eta emakumeen lansarien artean aldea handia egotea, prestakuntza urria izatea, lanbide-heziketarako aukera izatea, lana eta familia bateratu behar izatea, lan-baldintza prekarioak edukitzea, edota bizi-baldintza zailak. Horrenbestez, pertsonak pobrezia-egoeretatik aldentzeko, funtsezkoa da kalitate oneko enplegua eta laguntza sozial eta ekonomikoak ematea.

(18) Ez dago eskumenik edo oinarritzko prestakuntzarik gaur egungo lan-merkatuaren eskakizunetara moldatuta dagoenik, eta hori ere gizarteratzea oztopatzen duen beste faktoreetako bat da. Gero eta handiagoa da gizartea bitan zatitzeko arriskua. Alde batean, etengabeko ikaskuntza eskuratu dezaketen pertsonak egongo lirатеke. Pertsona horiek aukera gehiago dute, batetik, enplegarriagoak eta moldagarriagoak izateko, eta bestetik, pertsona moduan hazteko eta herritar parte-hartzaileak izateko. Beste aldean, berriz, baztertatutako pertsonak egongo lirатеke, nolabaiteko diskriminazioa jasan behar izaten dutenak. Prestakuntza egokia ez dutenentzat zailagoa izango da lan-merkatuan sartzea eta kalitate oneko enplegua lortzea. Litekeena da luzaroko langabezia egon behar izatea; eta lan eginez gero, gutxi ordaintzen duten enplegua izatea.

(19) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) eskura izatea eta horiek erabiltzeko gai izatea gero eta garrantzitsuagoa da behar bezala gizarteratuta egoteko. 2006ko ekainaren 11n Rigan onartutako ministro-deklarazioak guztiontzat informazioaren gizartea eskatzen du.

(20) Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka arrakasta izan dezan, erabakigarria da herritarrek eta politikek babes handia ematea. Gainera, aukera-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko EBren legeria benetan aplikatzen bada, errazagoa da Europako Urtearen helburuak betetzea. Europako Urte honek, horrenbestez, katalizatzaile-lana egin behar du: batetik, sentsibilizatzeko; bestetik, ekintza bultzatzeko; eta azkenik, pobreziaren aurkako borrokan diharduten eskualdeetako eta tokietako agintariek nazioarteko erakundeekin jardunbide onenak trukatzeko. Europako urteak, gainera, arreta politikoa erakartzen

1098/2008/EE erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 298/20, 2008/11/7koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

eta pobrezia-egoera bizi duten pertsona guztiak mobilizatzen lagundu behar du. Horrela, bi gauza lortuko dira: batetik, OMC gizarte-babeserako eta gizarte-inklusionarako bultzatzea eta indartzea; eta bestetik, etorkizunean, alor horretako erkidegoko eta estatuko ekintzak eta ekimenak sustatzea, pobrezia-egoerak eragindako pertsonekin eta haien ordezkariekin lankidetzan jardunda.

(21) Europako Urteak bi helburu ditu: bata, gizartratze-politika biziak bultzatzea, pobrezia-egoera eta gizarte-bazterkeriari aurre egin ahal izateko; eta bestea, OMCren barruan eremu horretako jardunbide onenak sustatzea.

(22) Herrialdeetan hainbat aurrerapen-maila dago, bai eta zirkunstantzia eta sentsibilitate sozio-ekonomiko eta kultural ugari ere. Hori dela eta, Europako Urteko ekintzak deszentralizatu egin behar dira, herrialdeetan ezarri, eta kudeaketa-sistema zentralizatua eta zeharkakoa erabili. Arau hauek bete behar dira sistema erabiltzeko: batetik, Kontseiluaren 1605/2002 (EE Euratom) Erregelamenduaren 2002ko ekainaren 25eko 54. artikuluko 2. paragrafoko c idatz-zatia (erregelamendu horrek Europako Erkidegoetako aurrekontu orokorreari aplikatzeko finantza-erregelamendua onartzen du ⁽¹⁾); eta bestetik, Batzordearen 2342/2002 (EE Euratom) Erregelamendua, 2002ko abenduaren 23koa. Azken horrek garapen-arauak eman zituen beste arau honentzat: Kontseiluaren 1605/2002 (EE Euratom) Erregelamendua, Europako Erkidegoetako aurrekontu orokorreari aplikatzeko finantza-erregelamendua onartzeko ⁽²⁾.

(23) Nolanahi ere, Batzordeak jarraipena egin behar du estatuetako lehentasun politikoak nola zehazten diren begiratzeko; izan ere, horrela bermatu ahal izango du helburu horiek koherenteak direla Europako Urterako adostutako helburu estrategikoekiko, eta, finean, OMCra ezarritako helburu komunekiko.

(24) Europako Urtea eraginkorra izan dadin, oinarritzko premisa bat dago: hain zuzen ere, ondo koordinatuta egotea parte hartzen duten eragileak, bai erkidegokoak, bai eskualdekoak, bai eta tokikoak ere. Tokietako eta eskualdeetako solaskideen rola garrantzitsua da; izan ere, pobrezia-egoera edo gizarte-bazterkeria bizi duten pertsonen interesak babestu beharri buruzko kontzientzia bultzatu behar dute.

(25) Europako Urtean estatu hauek parte hartu ahal izango dute: estatu kideek; Europako Esparru Ekonomikoaren Akordioko kide izan eta hango arauak betetzen dituzten Europako Merkataritza Askeko Elkarteko (EFTA) herrialdeek; erkidegoan sartzeko aurreatxikitze-estrategia bat duten herrialde hautagaiek; Mendebaldeko Balkanetako herrialdeek, haiekin ezarritako akordioetako baldintzei jarraiki; edota Europar Auzotasun Politikako (EAP) herrialdeek, 2004ko maiatzeko estrategia-dokumentuko xedapenei eta herrialdeen ekintza-planei jarraiki.

(26) Europako Urteak erkidegoan dagoeneko badauden zenbait programa eta ekimen koordinatzeko balio dezake: hain zuzen ere, pobrezia-egoera eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokaren eremukoak, bai eta gizarte-babeserako eta gizarte-inklusionarako OMC ere.

(27) Bermatu egin behar da erkidegoko beste ekintzekiko koherentea eta osagarria izango dela. Bereziki, Progress programarekiko, Egitura Funtsekiko, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsekiko (LGENF), diskriminazioaren aurka borrokatzeko ekintzekiko, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duten ekintzekiko, oinarritzko eskubideak sustatzen dituzten ekintzekiko, eta beste eremu batzuetako ekintzekiko: hala nola, hezkuntza eta prestakuntzaren eremukoak, kultura eta kultura arteko elkarrizketen eremukoak, gazteriaren, herritarren, immigrazio eta asiloaren eta ikerketaren eremukoak.

(28) Hainbat jardunbide erabili izan da aurreko Europako Urteetan, Pertsona Guztien Aukera Berdintasunerako Europako Urtean (2007) eta Kulturen arteko Elkarrizketaren aldeko Europako Urtean (2008), esaterako. Haietatik eratorritako jardunbide onenak Europako Urte honetan ere erabili behar dira.

(29) Erabaki honek arautzen duenez, programari finantza-zuzkidura emango zaio irauten duen bitarte guztian. Zuzkidura hori pribilegiozko erreferentzia da aurrekontu-agintarientzat, 2006ko maiatzaren 17ko erakundearen arteko Erabakiko 37. paragrafoaren arabera. Erabaki hori Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen artean hartu zuten, eta aurrekontu-diziplinari eta finantzak ongi kudeatzeari buruzkoa da ⁽¹⁾.

(30) 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiak araututakoari erreparatuko zaio Erregelamendu hau betetzeko neurriak onartzeko. Erabaki hark arautzen du zer prozedura bete behar dituen Batzordeak berari dagozkion eskumenak erabiltzeko ⁽²⁾.

(31) Estatu kideak bere kasa ez dira gai behar bezala betetzeko Erabaki honen helburua. Izan ere, besteak beste, elkarre multilateralak sortu behar dira, nazioz haraindiko estatuekin trukatu behar da informazioa, eta jardunbide onak erkidego osoan

(1) L 184 EO , 2002.9.16koa, 1. or.

(2) L 357 EO , 2002.12.31koa, 1. or.

(1) C 139 EO , 2006.6.14koa, 1. or.

(2) L 184 EO , 1999.7.17koa, 23. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

zabaldu behar dira. Ekintzen garrantzia kontuan hartuta, eta ikusita helburu hori hobeto lor daitekeela erkidegoaren esparruan, Erkidegoak, Tratatu 5. artikuluko zehaztutako subsidiarotasun-printzipioa baliatuz, neurriak har ditzake horren inguruan. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioaren indarrez, Erregelamendu honek helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak besterik ez ditu hartzen.

ERABAKI DU:

1. artikulua

Europako Urtea

Erkidegoak neurriak hartu ditu Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurka borrokatzeko, eta eginkizun horretan laguntzeko, 2010 «Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Europako Urtea» izango da (aurrerantzean «Europako Urtea»).

2. artikulua

Helburuak eta printzipio nagusiak

1. Europako Urtearen helburuak eta printzipio nagusiak hauek izango dira:

a) eskubideak aitortzea: pobrezia-egoera edo gizarte-bazterkeria bizi duten pertsonen oinarrizko eskubideak aitortzea; alegia, duintasunez bizitzea eta gizartearen parte hartzea. Europako Urteak, batetik, pobrezia-egoera bizi duten pertsonen egoerarekiko sentsibilizazio-maila igoko du, bereziki, ahulezia-egoera bizi duten pertsona eta taldeekikoa; eta bestetik, pertsona horiei lagundu egingo die benetan eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak izan ditzaten, eta behar dituzten baliabideak eta kalitate oneko zerbitzuak eskura izan ditzaten. Europako Urteak, era berean, estereotipoen eta estigmatizazioen aurka egiten lagunduko du;

b) elkarbanatutako erantzukizuna eta parte-hartzea: gizarte-inklusiorako egiten diren politika eta ekintzekiko konpromiso handiagoa izatea jendeak. Horretarako, bi gauza nabarmendu behar dira: batetik, gure ardura dela pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzea, bai talde garen aldetik, baita gizabanako garen aldetik ere; eta bestetik, oso garrantzitsua dela ekintza boluntarioak bultzatzea eta babestea. Europako Urteak, eragile publiko eta pribatuek parte hartzea bultzatuko du, besteak beste, elkarte dinamikoen bidez. Sentsibilizazioa eta konpromisoa sustatuko ditu, eta aukera emango du herritar guztiek, eta bereziki pobrezia-egoera zuzenean edo zeharka bizi izan duten pertsonen, parte har dezaten.

c) kohesioa: gizarteak kohesio handiagoa izatea bultzatu nahi du. Horretarako, herritarrak sentsibilizatuko ditu, ikus dezaten zer abantaila izango litzuzkeen pobreziarik ez duen gizarteak, bidezko banaketa egiten duen eta inor bazter uzten ez duen gizarteak. Gainera, hainbat gauza bermatuko ditu: batetik, garapen iraunkorra; bestetik, belaunaldien arteko eta belaunaldi berekoen arteko elkartasuna; eta azkenik, Europar Batasunak mundu osoan dituen ekintzekiko koherentzia politikoa.

d) konpromiso eta ekintza zehatzak: Europako Urteak sendotu egingo du pobrezia eta gizarte-bazterkeria prebenitzeko eta haien aurka egiteko duen konpromiso politikoa; eta gainera, eremu horietan estatu kideek eta Europar Batasunak prestatzen dituzten ekintzak gehiago bultzatuko ditu. Horretarako, Europako Urtea OMCK gizarte-babesean eta gizarte-inklusioan izandako lorpenetan eta potentzialean oinarrituko da, arreta politikoa erakarriko du eta alderdi interesdun guztiak mobilizatuko ditu.

2. Helburuak aplikatzean, Erkidegoak eta estatu kideek kontuan izango dituzte IV. eranskinean aipatutako lehentasunak.

3. artikulua

Ekintzen edukia

1. Estatuetan eta erkidegoan 2. artikuluko helburuak betetzeko, honako neurri hauek hartu ahal izango dira:

a) bilerak eta ekintzak;

b) informazio-, sustapen- eta hezkuntza-kanpainak;

c) erkidegorako eta estatueterako balio duten inkesta eta azterlanak; egokia izanez gero, generoa irizpidetzat hartuta xehatutako datuetan oinarrituko dira.

2. 1. paragrafoan aipatutako ekintzei buruzko xehetasunak eranskinean daude.

1098/2008/EE erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 298/20, 2008/11/7koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Jendearentzat oro har prestatutako ekintzetan parte hartzea erraza izango da denentzat, baita pobrezia-egoera bizi dutenentzat edo ezgaitasunen bat dutenentzat ere.

4. artikulua

Genero-ikuspegia aintzat hartzea

Hainbat arrisku eta alderdi ditu pobrezia eta gizarte-bazterkeriak, eta Europako Urteak kontuan izango ditu. Europako Urtea aplikatzean, Erkidegoak eta estatu kideek kontuan izango dute genero-ikuspegia aintzat hartu behar dutela.

5. artikulua

Erkidegoan Erabakia betetzea eta Erabakia betetzeko lankidetzak

1. 7. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako kontsulta-prozedurari jarraiki, erabaki hau betetzeko behar diren neurriak hartuko dira.
2. Batzordea arduratuko da Erabaki honetan jasotako erkidegoko ekintzak eranskinean araututakoaren arabera egin daitezen.
3. Batzordeak behar adina xedapen hartuko ditu, bereziki, 10. artikuluan adierazitako erkidegoko ekintzak eta ekimenak koherenteak eta osagarriak direla bermatzeko. Ekintza eta ekimen horiek 2. artikuluko helburuak betetzeko dira.
4. Batzordeak eta alderdi interesdunek —pobrezia-egoera bizi duten pertsonekin lan egiten duten pertsonak ere hor sartzen dira— aldizka adieraziko dizkiote elkarri Europako Urteari buruzko iritziak; hain zuzen ere, haren diseinuari, gauzatzeari, jarraipenari eta ebaluazioari buruzkoak. Batzordeak jendearen eskura jarriko du informazio garrantzitsu oro.
5. Europako Urtea prestatzeko eta aplikatzeko, Batzordeak eta Gizarte Babeserako Komiteak elkarrekin egingo dute lan; eta beharrezkoa izanez gero, Batzordeak beste komite garrantzitsu batzuei informazioa eman edo haiek inplikatuko ditu.
6. Egokia baldin bada, Batzordeak Europar Batasuneko beste erakunde, organo, bulego edo agentzi batzuekin egingo du lan.

6. artikulua

Estatuan Erabakia betetzea eta Erabakia betetzeko lankidetzak

1. Estatu kideek «Organismo nazional betearazleak» izendatuko dituzte Europako Urtean parte hartzeko modua antolatzeko eta hura estatu osoan koordinatuko dela bermatzeko. Organismo nazional betearazlearen ardura izango da, batetik, Europako Urterako estatuko programa eta lehentasunak zehaztea, eta bestetik, erkidegoak finantzatzeko proposatuko diren banakako ekintzak aukeratzea. 2. artikuluko helburuen arabera xedatuko dira Europako Urterako estatuko estrategia eta lehentasunak.
2. Eranskinaren II. zatian dago araututa zer-nolako prozedura bete behar den, erkidegoak estatu-esparruko ekintzak finantzatzeko onespena eman dezan.
3. Organismo nazional betearazleak hainbat alderdi interesduni kontsultatuko die eta haiekin batera arituko da elkarlanean programa nazionala lantzean, bai eta Europako Urtea aplikatzen den bitartean, egokia bada. Alderdi horiek askotarikoak dira: hala nola, pobrezia-egoera eta gizarte-bazterkeria bizi duten pertsonen interesak defendatzen eta ordezkatzeko dituzten sozietate zibileko erakundeak; lanaren alorreko ordezkariak; edota eskualdeko eta tokiko agintariak.

7. artikulua

Komitea

1. Batzordeak Komite baten laguntza izango du (aurrerantzean «Komitea» deituko diogu).
2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 3. eta 7. artikulua aplikatuko dira, kasuan kasuko artikuluan xedatutakoa kontuan hartuz.
3. Ahal den neurrian, 6. artikuluko 1. paragrafoan araututako Organismo nazional betearazleak izendatuko du nork ordezkatzeko dituen estatu kideak Komitean.

1098/2008/EE erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 298/20, 2008/11/7koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

8. artikulua

Finantza-xedapenak

1. Eranskineko I. zatian arautu bezala, bi aukera izango dira erkidego osorako ekintzak finantzatzeko; batetik, haien aurrekontuaren %80 bitarteko diru-laguntza jaso ahal izango dute; eta, bestetik, haiek egiteko kontratazio-prozedura publikoak egin ahal izango dituzte Europar Batasunaren aurrekontu orokorraren kontura.
2. Estatuko, eskualdeko edo tokiko ekintzek Europar Batasunaren aurrekontu orokorraren konturako baterako finantzaketa izan dezakete. Diruz lagun daitezkeen ekintzen kostu osoaren % 50 finantzatu ahal izango da, gehienez, eta II. eranskinaren prozedurari jarraituko zaio.

9. artikulua

Eskaerak aurkezteko eta hautatzeko prozedura

1. Batzordeak hartuko ditu 8. artikuluko 1. paragrafoan adierazitako ekintzak finantzatzeari buruzko erabakiak, eta 7. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako kontsulta-prozeduraren arabera hartuko ditu.
2. Organismo nazional betearazleek 8. artikuluko 2. paragrafoari jarraiki aurkeztuko dituzte ekintzak finantzatzeko laguntza-eskaerak. Eta horretarako, eranskinaren II. zatian azaldutako prozedura beteko dute.

10. artikulua

Koherentzia eta osagarritasuna

1. Batzordearen eta herrialde partaideen ardura izango da erabaki honetako neurriak koherenteak izatea erkidegoko, estatuetako, eskualdeetako eta tokietako beste ekintza eta ekimenekin.
2. Baldin eta dagoeneko erkidegoan, estatuetan eta eskualdeetan dauden ekimenek eta baliabideek Europako Urtearen helburuak betetzen lagun badezakete, erabat elkarren osagarri izan daitezen arduratuko dira Batzordea eta herrialde partaideak.

11. artikulua

Herrialde partaideak

Europako Urtean parte hartu ahal izango dute:

- a) Estatu kideek;
- b) aurretxikitze-estrategia bat duten herrialde hautagaiek. Herrialde horiek erkidegoko programetan parte hartzeko printzipio eta baldintza orokorrak bete behar dituzte. Printzipio eta baldintza horiek araututa daude esparru-akordioetan eta Elkarre Kontseiluaren erabakietan.
- c) Mendebaldeko Balkanetako herrialdeek. Herrialde horiek erkidegoko programetan parte hartzeko printzipio eta baldintza orokorrak bete behar dituzte. Printzipio eta baldintza horiek araututa daude haien esparru-akordioetan;
- d) EEEko Tratatu partaide diren EFTAko estatuek, akordio horretan xedatutakoari jarraiki;
- e) EAPko kide diren herrialdeek. Herrialde horiek erkidegoko programetan parte hartzeko printzipio eta baldintza orokorrak bete behar dituzte. Printzipio eta baldintza horiek araututa daude 2004ko maiatzeko estrategia-dokumentuan eta herrialdeen ekintza-planetan. EAPko herrialde kideen ekintzak Auzotasunaren eta Elkarrean Europar Tresnen kontura bakarrik finantzatu dira. Eta horretarako, herrialde horiekin lankidetzan aritzeko ildo orokorre ezarritako lehentasunak eta prozedurak beteko dira.

12. artikulua

Aurrekontua

1098/2008/EE erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 298/20, 2008/11/7koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Erabaki honetan aipatutako ekintzak 2009ko urtarrilaren 1aren eta 2010eko abenduaren 31ren bitartean betetzeko, 17.000.000 euro erabiliko dira; eta haietatik 6.500.000 euro 2009ko abenduaren 31 arteko eperako izango dira.
2. Aurrekontu-agintariak onartuko dituzte urteko kredituak, eta 2007-2013ko finantza-esparrua beteko dute.

13. artikulua

Nazioarteko lankidetzak

Europako Urtean, Batzordeak egoki irizten dituen nazioarteko erakundeekin batera egin ahal izango du lan; bereziki, Europako Kontseiluarekin, Lanaren Nazioarteko Erakundearekin eta Nazio Batuekin.

14. artikulua

Erkidegoaren finantza-interesak babestea

Erabaki honek finantzatzeko dituen ekintzak betetzean, Batzordearen ardura izango da Erkidegoaren finantza-interesak babestea. Horretarako, iruzurraren, ustelkeriaren eta legez kanpoko beste zenbait ekintzaren aurkako aurrezaintzako neurriak hartuko ditu. Neurri horiek hainbat eratakoak izan daitezke: kontrol eraginkorrak egitea, bidegabe emandako dirua berreskuratzea, eta irregulartasunik hautemanez gero, disuasio-zigor eraginkorrak eta proportzionatuak jartzea. Zigor horiek Erregelamendu hauek jarraitu behar dituzte: batetik, 2988/95 (EE Euratom) Erregelamendua, 1995eko abenduaren 18koa, Europar Erkidegoetako finantza-interesak babesteari buruzkoa ⁽¹⁾; bestetik, Kontseiluaren 2185/96 (Euratom EE) Erregelamendua, 1996ko azaroaren 11koa, Batzordeak finantza-datuak iruzurretik eta irregulartasunetatik babesteko *in situ* egiten dituen kontrolei eta egiaztapenei buruzkoa ⁽²⁾; eta azkenik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1073/1999 (EE) Erregelamendua, 1999ko maiatzaren 25ekoa, iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF) egindako ikerketei buruzkoa ⁽¹⁾.

15. artikulua

Jarraipena eta ebaluazioa

1. 2011ko abenduaren 31n beranduenez, Batzordeak txostena aurkeztuko dio bai Europako Parlamentuari, bai Kontseiluari, bai eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari ere, azaltzeko nola bete diren Erabaki honetan xedatutako ekintzak, zer emaitza izan duten, eta zer ebaluazio orokor izan duten.
2. Txostenak, gainera, azalduko du nola hartu den aintzat genero-ikuspegia Europako Urtearen ekintzetan, eta zenbateko onura ekarri dien Europako Urteak egoera ahulean bizi diren talde edo pertsonen.

16. artikulua

Indarrean sartzea

Erregelamendu hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeiei eguneko epean sartuko da indarrean.

Estrasburgon emana, 2008ko urriaren 22an.

Europako Parlamentuaren izenean Lehendakaria H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean Lehendakaria J.-P. JOUYET

(1) L 312 EO, 1995.12.23koa, 1. or.

(2) L 292 EO, 1996.11.15ekoa, 2. or.

(1) L 136 EO, 1999.5.31koa, 1. or.

ANEXO

Información sobre las acciones a las que se hace referencia en el artículo 3 de la presente Decisión

I. ACCIONES A ESCALA COMUNITARIA

1. Reuniones y actos

Organización de reuniones y actos a nivel comunitario, destinados a sensibilizar sobre el Año Europeo y la pobreza y la exclusión social, y prever un foro para el intercambio de ideas. Reunirán partes interesadas pertinentes y serán programadas junto con personas en situación de pobreza y las organizaciones de la sociedad civil que las representan. Estas reuniones y actos facilitarán el desarrollo de medidas y prácticas de capacitación social para todos y ayudarán a abordar las carencias en materia de políticas, así como a sensibilizar a los actores y las instituciones pertinentes en lo que respecta a las múltiples dimensiones de la pobreza y la exclusión social (en especial entre las mujeres y los niños), incluidos factores tales como el acceso al empleo, a la vivienda, a la protección social, al apoyo a la familia y a los servicios sanitarios y sociales.

2. Campañas de información y promoción, que incluirán:

- la organización de diversas iniciativas de solidaridad para atenuar la pobreza y para la inclusión social, a fin de dar a todos los ciudadanos la oportunidad de contribuir directamente o a través de sus organizaciones de cualquier forma, por modesta que sea. Las campañas en los medios de comunicación a escala comunitaria y nacional podrán apoyar operaciones de recaudación de fondos en el marco del Año Europeo,
- la elaboración de un logotipo, disponible en diversos formatos, y de lemas para el Año Europeo, que será utilizado en conexión con las acciones relativas al Año Europeo,
- una campaña de información a nivel comunitario con difusión a nivel nacional y local, por medio de canales de comunicación tanto tradicionales como nuevos, y de nuevas tecnologías,
- la producción de instrumentos de comunicación y soportes destinados a estimular el interés del público, que podrán obtenerse en toda la Comunidad,
- medidas e iniciativas apropiadas para facilitar información, publicitar los resultados y mejorar la visibilidad de los programas, las acciones e iniciativas comunitarios que contribuyan a los objetivos del Año Europeo,
- iniciativas adecuadas de las instituciones educativas, organizaciones no gubernamentales y asociaciones benéficas, a escala comunitaria y nacional, para difundir información sobre el Año Europeo y sobre las medidas de lucha contra la pobreza y la exclusión social,
- la organización de competiciones europeas que resalten los logros y las experiencias en relación con los temas del Año Europeo,
- una sólida relación con organizaciones y sectores que normalmente no se dedican a cuestiones relacionadas con la pobreza y la exclusión social (como el deporte o el arte), por ejemplo, recurriendo a testimonios y «embajadores»,
- la creación de una página informativa en el sitio web Europa.

3. Otras acciones:

- encuestas y estudios a escala comunitaria, basados, cuando proceda, en una compilación de datos desglosados por género, para evaluar e informar sobre la preparación, la eficacia y el impacto inmediato y a largo plazo del Año Europeo. Para facilitar la identificación de soluciones innovadoras, una encuesta de este tipo también debería calibrar la opinión pública sobre políticas destinadas a prevenir la pobreza y la exclusión social y luchar contra las mismas, incluidos, cuando proceda, los sistemas de protección social, y sobre el papel que podría representar la Unión en la lucha contra la pobreza y la exclusión. Esta encuesta se realizará en 2009, de manera que puedan presentarse sus resultados en la Conferencia Inaugural del Año Europeo,

- el fomento de estudios sobre la relación entre la pobreza extrema y los derechos fundamentales,
- la cooperación con el sector privado, la radio, la televisión y otros medios de comunicación para difundir información sobre el Año Europeo, así como en acciones destinadas al diálogo a largo plazo sobre cuestiones sociales,
- la asistencia técnica para facilitar la transferencia de las enseñanzas,
- un informe de evaluación sobre la eficacia e incidencia del Año Europeo.

Podrían establecerse vínculos específicos con la organización de actos a nivel europeo e internacional, en particular, creando sinergias entre el Año Europeo y las actividades desarrolladas cada año en torno al 17 octubre, Día Internacional de las Naciones Unidas para la Erradicación de la Pobreza.

La Comisión podrá recurrir a asistencia técnica o administrativa en beneficio propio y de los Estados participantes, por ejemplo, financiando el asesoramiento de expertos externos sobre un tema específico.

4. Financiación

A reserva de las disposiciones de los artículos 8 y 12 de la presente Decisión, la financiación de estas medidas podrá realizarse mediante:

- la adquisición de bienes y servicios, en especial en el campo de las comunicaciones, mediante licitaciones,
- la adquisición de servicios de consulta, mediante licitaciones,
- la concesión de subvenciones para cubrir los gastos de actos especiales a escala comunitaria cuyo propósito sea realzar y dar a conocer el Año Europeo. Esta financiación no excederá del 80 % del gasto total realizado por el beneficiario.

II. COFINANCIACIÓN DE LAS ACCIONES A NIVEL NACIONAL

Estas acciones deberían tener en cuenta la necesidad de proporcionar oportunidades de financiación que garanticen el acceso a organizaciones sobre el terreno y a proyectos en los que participen los grupos más marginados.

1. Las acciones a nivel nacional, regional o local podrán optar a financiación con cargo al presupuesto de la Comunidad con un límite máximo del 50 % de los costes totales subvencionables por cada país participante. La cofinanciación nacional debe ajustar la financiación de la UE como mínimo al 50 % de las fuentes públicas o privadas. Al seleccionar las acciones, los Organismos nacionales de ejecución tendrán libertad para decidir si solicitan cofinanciación a la organización responsable de realizar las acciones individuales y, en caso de solicitarla, en qué medida.
2. Tras la adopción de la presente Decisión, la Comisión elaborará un Documento Marco Estratégico que, junto a los objetivos enunciados en el artículo 2 de la presente Decisión, establecerá las prioridades clave para la realización de las actividades del Año Europeo, incluidas unas normas mínimas de participación en los organismos nacionales y en las acciones.
3. En respuesta al Documento Marco Estratégico, cada Organismo nacional de ejecución elaborará, previa consulta a la sociedad civil, un Programa nacional de ejecución del Año Europeo, en estrecha coordinación y coherencia con las Estrategias Nacionales de protección social e inclusión social.
4. Cada Organismo nacional de ejecución presentará una única solicitud de financiación comunitaria. En dicha solicitud de subvención se describirán el programa y las prioridades nacionales para el Año Europeo y las acciones propuestas para su financiación. La solicitud de subvención irá acompañada de un presupuesto detallado en el que figuren los costes totales de las acciones propuestas, así como la cantidad y las fuentes de cofinanciación. Entre los costes subvencionables pueden contarse los costes de personal y administrativos efectuados por el Organismo nacional de ejecución.
5. La concesión de subvenciones globales a los países participantes dependerá de la medida en que los objetivos fijados en el artículo 2 de la presente Decisión y desarrollados en el Documento Marco Estratégico se cumplan satisfactoriamente en el Programa Nacional de ejecución del Año Europeo.

6. La Comisión evaluará las solicitudes de financiación comunitaria presentadas por los Organismos nacionales de ejecución, incluyendo un control del cumplimiento de los objetivos a que hace referencia el artículo 2 de la presente Decisión. En caso necesario, la Comisión solicitará modificaciones de las solicitudes.
7. Entre las acciones en el marco del punto 1, podrán incluirse:
- a) reuniones y actos relacionados con los objetivos del Año Europeo, como actos nacionales para ponerlo en marcha y promoverlo, crear un efecto catalizador y facilitar espacios abiertos para el debate sobre acciones concretas para luchar contra la pobreza y la exclusión social;
 - b) seminarios de aprendizaje mutuo a nivel nacional, regional y local;
 - c) otros actos relacionados con la preparación de iniciativas comunitarias (como la Mesa Redonda Anual sobre la Pobreza y la Exclusión Social y la Reunión Europea de las Personas en Situación de Pobreza);
 - d) campañas informativas, educativas y promocionales y otras acciones en centros de enseñanza, así como medidas con un gran efecto multiplicador para difundir los principios y los valores subyacentes ensalzados por el Año Europeo a nivel nacional, regional y local, con la organización de premios y concursos;
 - e) encuestas y estudios distintos de los mencionados en el punto 3 de la parte I, para examinar con mayor detalle las cuestiones clave del Año Europeo;
 - f) oportunidades de formación para que los funcionarios, los interlocutores sociales, los medios de comunicación, los representantes de organizaciones no gubernamentales y otros agentes aumenten su conocimiento de la pobreza y los fenómenos de exclusión social, de las políticas europeas y nacionales de inclusión social y de los distintos instrumentos políticos disponibles, aumenten su capacidad de tratar problemas relacionados con la pobreza, y se vean animados a desempeñar un papel activo en la lucha contra la pobreza y la exclusión social;
 - g) la cooperación con los medios de comunicación;
 - h) la elaboración de planes piloto de acción, tanto regionales como locales, para la inclusión social.

III. AYUDA NO FINANCIERA

La Comunidad concederá una ayuda que no tenga carácter financiero, incluida una autorización por escrito para utilizar el logotipo específico creado para el Año Europeo y otros materiales relacionados con el mismo, para iniciativas emprendidas por organizaciones públicas o privadas, siempre que estas puedan ofrecer garantías a la Comisión —sobre la base de los criterios específicos que figuran en el Documento Marco Estratégico— de que las iniciativas en cuestión se realicen o vayan a realizarse durante el Año Europeo y sea probable que supongan una contribución significativa a la realización de uno o más de sus objetivos.

Las iniciativas organizadas en terceros países en asociación o cooperación con el Año Europeo también podrán recibir una ayuda que no sea de carácter financiero con cargo a la Comunidad, así como utilizar el logotipo y otros materiales relacionados con el Año Europeo.

IV. PRIORIDADES DE LAS ACTIVIDADES DEL AÑO EUROPEO

Teniendo en cuenta el carácter pluridimensional de la pobreza y la exclusión social y con objeto de integrar en otras políticas la prevención de la pobreza y la exclusión social y la lucha contra las mismas, las actividades del Año Europeo deben aspirar a producir un claro valor añadido y a complementar efectivamente el MAC en materia de protección social e inclusión social. Por tanto, estas actividades deben centrarse en un número limitado de ámbitos prioritarios.

Con arreglo al análisis realizado y a las prioridades señaladas en el informe conjunto de protección social e inclusión social, el Año Europeo debe centrarse en los temas siguientes:

- promover estrategias integradas pluridimensionales para prevenir y reducir la pobreza, especialmente la pobreza extrema, y enfoques que se integrarán en todas las políticas relevantes,

- luchar contra la pobreza infantil, incluida la transmisión de la pobreza de una generación a otra, así como la pobreza en las familias, con especial atención a las familias numerosas, a las monoparentales y a las familias con una persona dependiente a cargo, y la pobreza en la que viven los niños en las instituciones,
- promover mercados laborales que propicien la inclusión, abordando el problema de la pobreza en el empleo y la necesidad de hacer que trabajar resulte rentable,
- erradicar las desventajas en materia de educación y formación, incluida la formación en alfabetización informática y la promoción del acceso igualitario a las TIC, prestando especial atención a las necesidades específicas de las personas con discapacidad,
- abordar las perspectivas de género y edad de la pobreza,
- garantizar el acceso igual a servicios y recursos adecuados, incluidas una vivienda digna, la sanidad y la protección social,
- facilitar el acceso a oportunidades culturales y de ocio,
- superar la discriminación y promover la inclusión social de los inmigrantes y de las minorías étnicas,
- promover enfoques integrados de inclusión activa,
- abordar las necesidades de las personas con discapacidad y de sus familias, de las personas sin hogar, así como de los demás grupos o personas en situaciones vulnerables.

Al planificar las actividades del Año Europeo con arreglo a las citadas prioridades, los países participantes las adaptarán a las situaciones y los desafíos nacionales, regionales y locales, teniendo en cuenta la cohesión territorial.

A la luz de los objetivos enunciados en el artículo 2 de la presente Decisión, la cuestión de la participación debe integrarse en todas las prioridades.

Con arreglo al artículo 4 de la presente Decisión, la Comisión y los Estados miembros deberán tener en cuenta, al llevar a cabo las actividades del Año Europeo, las distintas formas en que las mujeres y los hombres experimentan la pobreza y la exclusión social. También garantizarán que la perspectiva de género se integre en las prioridades del Año Europeo, con objeto de promover la igualdad entre hombres y mujeres.
